



# Gurean

berdintasuna



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea  
1. zbk. 2017 Azaroa

## HEZKIDETZA

indarkeria SEXISTA  
prebenitzeko





# HEZKIDETZA INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEKO

EGITASMO PILOTO BAT BASAURIKO IKASTETXE BATEAN BULLYING MATXISTAREN ARAZOA LANTZEKO

***Bederatzi urte bete ditu "1tera2kain" egitasmoak Basauriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. Ekimen honen helburua berdintasuna bultzatu eta indarkeria matxista saihestea izanik, aurten egitasmo piloto bat egingo dute IES Uribarri BHI ikastetxean bullying matxistaren gaia lantzeko***

Aspalditik ikastetxetan baterako hezkuntza lantzen da, hau da, heziketa pertsonen banakotasuna eta berezitasunak kontutan hartuta burutzen da, generoa albo batera utzita. Horrela irizpide sexistetatik gizon eta andreei eransten zaizkien rolak, balioak eta portaerak arbuiaut egiten dira.

Baterako hezkuntza bultzatzeko egitasmoen artean, aurten 9 urte bete dituen eta Basauriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bost ikastetxeetan burutzen den "1era2kain" ekimena dago.

*"Adin jakin bateko udalerriko biztanleria osoa bere gain hartuko zuen egitasmo bat bultzatzea oso garrantzitsua iruditu zitzaigun, hau da, ez zenbait ikastetxeetan jardutea bakarrik, baizik eta udalerriko gazteri osoarengana heltzea"* esan du **Anabel Sanz**, Basauriko Udaleko Berdintasuna eta Kooperazio teknikaria.

Ekimen hau Cooperativa Equipare Elkarte Txikia-k burutzen du eta bere heburu nagusia, gazteok egunerokotasunean bizi izaten dituzten sexu berdintasunarekin lotutako portaera eta jarrerak identifikatzea da eta beraien

bilakaera pertsonala gauzatzeko orduan berdintasun balioak erabiltzeko tresnak izatea. Horretarako egitasmo hau "Basauriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bost ikastetxeetako ikasgeletan landu egin dugu, lehenengo mailatik laugarrenera, beti ere lau gai estrategiko kontutan hartuta: erantzunkidetasuna, autokontzientzia eta autonomia; sexu heziketa; indarkeria matxista eta maitasun erromantikoa; eta azkenean etorkizunerako lan hautapenak genero ikuspuntu batetik" azaldu du **Arantza Fernandez Plaza**, Equipare elkartearen kidea.

Egitasmo honen bigarren zatian ikasgelatik kanpo aritzea proposatzen da, gazteok berdintasunarekin zerikusirik duten jarduerak ikaskuntzarekin bakarrik lotu ez ditzaten, eta haien bizitzarekin ere erlazionatu ditzaten. "Arazoa zera da, ekimenak ikasgelatik kanpo egitea oso zaila dela, ikasleak bukaera ekintza batera eramateak irakasleon oso konpromiso handia eskatzen baitu, eta hau dela eta ez genuen helburua lortu "Beldur Barik" egitasmoa sortu zen arte. Une horretan ikastetxetik kanpo aritzeko asmo hori "Beldur Barik" jarrerak bultzatzeko kanpo ekintzetan gauzatu zen, Berdinsarearekin koordinatuz", esan du **Sanz**-ek.

## "1tera2kain" egitasmoan parte hartuko duten Basauriko ikastetxeak

- IES Uribarri BHI: Uribarri Kalea, 11. Tfnoa: 944 40 01 11 Web: [www.iesuribarri.com/](http://www.iesuribarri.com/)
- IES Urbi BHI: Agirre Lehendakaria kalea, 93. Tfno: 944 49 29 96 Web: [www.urbibasauri.org/](http://www.urbibasauri.org/)
- CPI Soloarte IPI: Soloarte kalea, 2 Tfnoa: 944 499 560 Blog: <http://soloarteskola.blogspot.com.es/>
- Cooperativa Basauri: Basozelai, Z/G Tfnoa: 944 49 20 38 Web: <http://www.colegiobasauri.net/web/>
- Colegio San José Ikastetxea: Nafarroa Kalea, 18 Tfnoa: 944 49 16 44 Web: <https://sanjosebasauri.org/>

## Bullying matxistaren aurkako egitasmo pilotoa

*"Gaur egungo hezkuntzan eskola arrakasta eta lanbide arrakasta lehenesten dira beste heziketa eduki batzuren aurrean, eta bigarren hezkuntzan are eta gehiago. Balioen heziketa ez da lantzen erabakitako eduki zehatz batzuren barruan ez bada"* adierazi du **Fernandez**-ek. Basauriko Udaleko Berdintasun Sailak egindako esperientzien balorazioen ostean, aurten "1tera2kain" egitasmoaren jarduna murriztea erabaki du, ikasgeletan lau orduetatik, bi orduetara pasatuz eta ekimena Derrigorrezko Bigarren



Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailalara mugatuz. "Landuko diren edukiak indarkeria matxistarekin eta harremanen sexu eta afektibitatearen ikuspuntuarekin lotuta daude. Eta beti egin izan dugunez erantzun aktiboak bilatuko ditugu" aipatu du **Fernandez**-ek.

Bestaldetik aurtengo berritasuna IES Uribarri BHI ikastetxean *bullying* matxistaren aurka abiatuko den egitasmo pilotoa da. *"Ikasketa-buruak eta ikastetxeko zuzendaritzak proiektu hau aurrera aterako dutela hitzmatea funtsezkoa izan da, honako hau eskolako partaide guztien inplikazioa behar duen ekimena baita. Egitasmo hau uste dugun bezain onuragarria dela egiaztatzen bada, bere eragina zabaltzen saiatuko ginateke parte hartu nahi izango luketen Basauriko beste ikastetxeetara"* aurreratu du **Sanz**-ek.

Eskola jazarpeneko zio eta ereductan eragina duten faktoreen artean sexualitate eta genero rola daude. "Gaur egun asko hitz egiten da *bullying*-ari buruz, baina askotan ikustezina bihurtzen dira jarrera bortitzak, matxismoa, arrazismoa, homofobia eta lesbofobiaren atzean dauden arrazoiak... Berdinak diren kideen arteko biolentzia hitz egiten da baina ez da kontutan hartzen aldeaz aurretik botere harreman eta diskriminazio egoera batzu badaudela eta egoera hauek ikustarazi eta lantzen ez badira, orduan ez diegu zinez aurre egiten eta hor barneratuta geratzen dira" adierazi du **Sanz**-ek.

Emakundek egindako "Oinarrizko eskolako neskek jasotzen duten indarkeriaren azterketa" lanaren arabera, "eskolara doazen neskek, generoaren estereotipoez eraginda-

*ko eta gizonen andreekiko ustezko nagusitasunean oinarritutako erasoak pairatzen dituzte beraieen eskolakideengandik, eta honek etorkizuneko emakumeekiko portaera bortitzak indartzen ditu".*

"1tera2kain" egitasmoaren barruko ekimen piloto honetatik argi eta garbi adierazten da *bullying* matxista gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunarekin lotuta dagoela, eta zeharka badaukala zerikusirik arrazismoa, homofobia eta beste alor batzuekin. "Andreen aurka jotzen da, andre izate hutsagatik, baina baita ere gizon batzuren aurka, trans pertsonen aurka, eta gizona eta andrea izateko eredu hegemonikoaren aurka bihurtzen diren guztien aurka. Eta hemetik hasi behar dugula uste dugu" azaltzen du **Sanz**-ek.

Lehendabiziko ikasturte honetan IES Uribarri BHI ikastalde guztietako ikasle eta irakasleekin *bullying* matxistari buruzko heziketa landuko dugu, konfidantzazko giroa sortu nahi dugu gero edozein pertsonak zer gertatzen ari zaion adierazi ahal izateko aukera izan dezan. Modu honetan ikasleek beraiek, irakasleen laguntzarekin, lagunduko dute eta erantzun bat emango diote sortzen diren prozesuei.

"Ikastetxeetan oso arduratuta daude eskola jazarpenarekin, baina ez dakite nola jokatu. Elkarbizitzaren aurkako portaeraz hitz egiten da, baina *bullying* hitzarekin gertatzen den bezala azkenean portaera horien atzean dauden egiazko arazoak ez dira ikusten. Azterketa zentratu behar da, gertatzen ari denaren azterketa zuzena egiten bada orduan erantzun egokiagoa eman ahal izango dugulako" bukatzen du **Fernandez**-ek.

## DATU BATZUK

### 2017-2018 ikasturterako Ekipare elkarteak kudeatutako "1tera2kain" baterako hezkuntzako egitasmoaren ezaugarriak

- **Ikasleria:** 12 eta 16 urte bitarteko 1.200 ikasle.
- **Bullying matxistaren aurkako ekimen pilotoa:** ikasle eta irakasleekin *bullying* matxistari buruzko heziketa landuko dugu, konfidantzazko giroa sortzeko asmoz gero edozein pertsonak zer gertatzen ari zaion adierazi ahal izateko aukera izan dezan
- **Partehartzea ikasgelan:** Egitasmoan parte hartzen duten ikastetxetako ikasgela bakoitzean ordu bi urteko. Ikastaro bakoitzean honelako edukiak landuko dira: 2º DBH: sexu heziketa; 3º DBH: indarkeria matxista.
- **Ikasgelaz kanpoko partehartzea:** Red Berdinsarea-rekin koordinatuz "Beldur Barik" egitasmoa bultzatzeko eskolaz kanpoko ekimenak zehaztuko dira

## Interesgarria / De Interés


### BIDEOA



#### VOLAR

Emakundek sustatutako pelikulan, Bertha Gaztelumendik zuzendariak indarkeria jasan duten bederatzik emakumeren testigantzak jasotzen ditu. Baserri batean astebetzez elkarrekin biziko dira protagonistak, eta giro honek euren bizitzetaz buruz lasaitasunez hitz egiteko aukera emango die, indarkeriak euren bizitzak nola baldintzatu dituen azaldu ahal izango dutelarik.

### LIBRO



#### MACHISMO. 8 pasos para quitártelo de encima

Es el nuevo libro de la tuitera y columnista Barbijaputa publicado en febrero de este mismo año. Y es también un camino de ocho fases para "acabar con nuestra parte machista", según la autora. Por lo tanto, El libro clave para abrazar al feminismo de forma fácil y lo menos dolorosa posible.

### MÚSICA

#### CANCIONES VIOLENCIA DE GÉNERO



#NOa la Violencia de Género recomienda 10 canciones que hablan sobre el tema y que además están compuestas por grupos donde hay mujeres para visibilizar el problema y, de paso, recomendar grupos de música. Si queréis haceros con esta lista tan solo tenéis que ver este video: [https://www.youtube.com/watch?v=EGe3QiW2C\\_E](https://www.youtube.com/watch?v=EGe3QiW2C_E) Aprovechad los TEMAZOS!!



Gazteei zuzendutako ikus-entzuzko lehiaketarekin irekiko da 2017ko beldur barik programa Eibarren


Beldur Barik gazteei zuzendutako indarkeria sexista prebenitzeko programa bat da, EAEko instituzioek elkarlanean bultzatzen dutena, eta Hezkuntza Saila laguntzailea da beste urte batez. Programaren helburua da gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea jendartea eraldatzen laguntzeko.

Programa horren baitan Beldur Barik ikus-entzuzko lehiaketa eta topaketa egingo dira. Topaketa Eibarren egingo da, abenduaren 2an, eta bertan tailerrak, kalejira eta lehiaketaren sari banaketa egingo dira. Informazio gehiago: [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)

La Universidad del País Vasco colocará un tercer baño en facultades y escuelas por la diversidad sexual

Las facultades y escuelas de la Universidad del País Vasco podrán instalar el tercer baño en una iniciativa pionera entre las universidades españolas. La instalación de este tercer baño se realizará junto al de hombres y mujeres, y trata de responder a la diversidad sexual. Además también se añadirá una tercera casilla para el sexo en todos los formularios con la definición de Persona no binaria.

En palabras de la vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural, Idoia Fernández "Es una manera de dar visibilidad y legitimar a unos colectivos que existen en la sociedad"



## Hemen da GUREAN aldizkari digitala



Hemen duzu "GUREAN" aldizkari digitala. GUREAN Tanttakarekin abiatutakoa jarraituko duen proiektua da. GUREAN-ek hezkuntza arloan berdintasuna lantzeko hainbat baliabide eta informazio emango ditu. Hain zuzen ere, GUREANen asmoa da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako balioak eta konpromisoa gurera ekartzeta eta gureak direla gogoratzea izango litzateke. Izan ere, emakumeen eta gizonen berdintasuna guztion ardurua da, indibiduala administrazioko langileak garen aldetik, zein instituzionala gobernuko saila garen aldetik; saileko kargudunena, langileena zein eskola komunitatearena. Horretarako garrantzitsua da gu guztion inplikazioa gure aniztasunetik, berdintasunerako sarea jostea.

Oraingoan aldizkaria urtean hirutan argitaratuko da, data jakinetan, hau da: **Azaroaren 25ean**, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, **Martxoaren**

**8an**, Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta **Maiatzaren 17an**, Homofobia, Lesbofobia, Transfobia eta Bifobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna.

Aldizkarian hurrengo atalak aurkituko dituzu: **elkarrizketa**, hezkuntza eta berdintasunean adituak diren pertsonen egindakoak saileko esku-hartze arloko gai baten inguruan; **erreportajea**, hezkuntza eta berdintasunaren inguruko gai bat sakonki landua; **Interesgarria**, ale bakoitzean liburu, pelikula eta abesti bat aholkatuko dizugu; **Berriak**, 3 berri hezkuntza eremuan berdintasunaren alde egindako ekimenak ezagutzera emateko; **¿sabias que?**, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunen inguruko berri laburrak, historian zehar emakumeek egin dituzten ekarpenen ingurukoa, edo kontzeptuak argitzeko atala eta **denbora pasa bat**.

Aldizkaria zure intereserako izatea eta zure lanean baliagarria izatea espero dugu!

### ¿SABIAS QUE?

Las hermanas Mirabal fueron tres hermanas dominicanas que se opusieron fervientemente a la dictadura de Rafael Leónidas Trujillo. Las tres fueron asesinadas el **25 de noviembre de 1960**.

El asesinato de las Mirabal provocó que el pueblo dominicano se mostrara cada vez más proclive a apoyar a las Mirabal y sus ideales. Esta reacción contribuyó a despertar conciencia en el público, y finalmente culminó con el asesinato del dictador.

En 1981, el movimiento feminista latinoamericano declaró el **25 de Noviembre** Día Internacional contra la Violencia de Género.

# BEATRIZ UGARTE

## HEZKIDETZARI BURUZKO AHOLKULARIA ETA HEZITZAILEA

Beatriz Ugarte, filosofian lizenziatua da eta bere hasierako urteetan filosofia eta etika klaseak eman zituen bigarren hezkuntzako ikasle-entzian. 1993-an hezkidetzan aholkularia eta hezitzailea izateko bidea hasi zuen, garai hartako **Pedagogi Aholkularitza Tegietan (COP/PAT)**, geroago gaur egungo **Berritzeguneak** bihurtuko zirenak. **Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU)** elkarlanean aritzen da ere **Gizonezko eta emumezkoen berdintasunaren gaineko Masterrean** eta **“Hezkidez anaberritzea”** ikastaro osagarrian.

Zer da hezkidetzaren?

Ikasleriaren gaitasunen garapen osoa bermatzeko egokia den **genero- eta sexu-estereotiporik gabeko hezkuntza** da. Garapen honetan, norbanako eta talde identitatearen eratze prozesua kultura heteropatriarkalak ezartzen dituen genero aginduetatik aske egitea funtsezkotzat jotzen da.

Zergatik inplementatu behar da ikasgeletan?

Identitatearen eraketarako sozializazio prozesua ezinbestekoa da, eta eskolatzeko garaian ikasgela, harremanetan dauden identitatearen laborategia bihurtzen da. Aukera ezin hobea da genero aginduetatik aldentutako **alternatibak eskeintzeko**.

Nolakoa da hezkidetzaren ekarpena sozializazio prozesu hauetan?

Hezkidetzan oinarritutako sozializazio prozesuetan balio eta arau multzo bat garatzen dugu eta hauek indarkeria matxistara eramaten duten jokabideak prebenitu eta berdintasun jarrerak bultzatzen dituzte.

Egia da indarkeria handitu egin dela ikas-

geletan?

Nik ez nuke esango indarkeria handitu denik. Eskola gizartearen isla da, eta gizartea kontrol eta mendetasun harremanetan oinarrituta dagoen bitartean, hau ikasgeletan islatuko da.

Esanenezake gizartean lehen baino biolentzia handiagoa dagoela? Nik uste dut orain indarkeria beste modu batera azaltzen dela, gizartea bera ere aldatu delako. Hortaz heteropatriarkatuak biolentzia erabilzeko modu berriak erabiltzen dituzenez, arazoa da ez dakigunean nola aurre egin hauei, edo ez dakigula errealitate berriei buru emateko esku-hartze berririk

Noiz hasi ziren eduki hezkidetzako erabiltzen ikasgeletan?

Hirurogei eta hamargarren hamarkadan baziren irakasleak feminismoak irakatsitakoa ikasgeletara eramaten saiatu zirenak. Laurogeigarren hamarkadan mugimendu honek indar garrantzitsua hartu zuen **P.A.Tetan zeuden mintegien** laguntzarekin eta garai honetatik hezkidetzan aintzindaria izan zen **Mari José Urruzola** aipatu behar dugu. Laurogei eta hamargarren hamarkadan **EMAKUNDE-k** hezkidetzaren sare oso garrantzitsua bultzatzea lortu zuen.

Zein zereginak betetzen dute Berritzeguneek hezkidetzan?

Ezinbestekoak dira hezkidetzaren politikaren prozesuak zabaldu eta ikasgeletako hezkuntza eskaintza handitzeko. Esperientziak, materialeak partekatzeak eta irakasleak ahalduz dituzten elkarlan sareak sortzeko guneak eskaintzen dituzte ere.

Ba daude prozesu hezkidetzako ezarritako faktorerik eta erresistentziarik?

Bai, lehengoak da ez zaiola lehentasunik ematen gai honi, beti dagoelako zerbait ga-

rantzitsuagoa.

Bigarrena feminismoa eta hezkidetzari buruzko aurriritzi asko eta ezjakintasun handia dagoela.

Eta hirugarrenez esan behar da irakasleok batzutan hezkidetzaren zama handiagotzat hartzen dutela, eta egia esan hezkidetzaren ari-tzeak ez du lan gehiagorik esan nahi, baizik eta lan hori beste modu batera egitea.

Hezkidetzaren eginkizunak aurrera eramanez izateko arau politiko sendoak daudela uste duzu?

Baietz uste dut, 2013-16 aldian **Euskal hezkuntza sistema Hezkidetzaren prebentzioarako gida plana** izan dugu eta horren jarraipena izango dena omen dator, baina hala ere hezkidetzaren ezartzea borondatezko zeregin bat bezala uzten da. Egiturak sortu behar direla uste dut eta era berean egitura eta baliabide horiek jarraitutasun bat izan dezaten eskatu, ebaluatu eta ikuskatu behar dira. **E.A.En** gaia erakunde ezberdinetatik jorratzen da eta beraien arteko elkar-lana ezinbestekotzat jotzen dut sinergia eta etekinak handiagoak izateko.

Gizarte patriarkal batean bizi garela, nola sortu liteke eskola ez patriarkal bat, berau gauzatzerakoan porrot egin gabe?

Egia esan horrenbeste mendetako gizarte patriarkalaren zama daukagunez batzutan zerbait konfiantza dela sinisterraino heltzen gara. Baina atzera begiratzen badugu konturatu gara alor askotan aurrera egin dugula. Honek aldaketa posiblea dela adierazten digu. Prozesu guztietan bezala hausnartzeko baliagarriak diren galdutxoak daude. Nik uste dut gure eginahalean huts ez egiteko garrantzitsuena aliantzak sortzea dela, ikasgeletan bakarrik ez zaudela sentitzea eta esperientziak partekatzea, informazioa eta prestakuntza izatea, lana planifikatu, sistematu eta egituratzea, hezkidetzaren ikasgeletan identitate-marka izan dadin.

Datorren Abenduaren 2an Beldur Barik Topaketa ospatzen da EIBARREN

Hementxe hara iristeko bidea topatu dezakezu. Animo!

